

BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUKO

GOBERNU BATZORDEARI

Iñigo SANTXO URIARTE, 3.874 Elkargokide zenbakia eta EAZ 14.600.281-L duena eta jakinarazpenetarako helbidea bere bulegoan, hau da, Bilboko Done Bikendi kaleko 3 – 1. eskuman (48.001) duena, baita jakinarazpenetarako posta elektronikoa i.santxo@gaurko.eus duelarik, idazki honen bidez, garaiz eta behar den moduan agertu, eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Estatutu berrien proiektuan —Gobernu Batzordeak 2024ko irailaren 18an onartutakoak— dagokion prozedura gauzatu ondoren, ondoko zuzenketa hauek onartzea proposatzen du:

1. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Emendatu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 3.a
- Orrialdea. 7 eta 8
- Paragrafoa: l).

- Paragrafo honek adierazten du Elkargoaren funtsezko xedeak, bertan aipatzen diren 11 funtzio direla:

“a) Abokatutzaren lanbidearen jarduna antolatzea, lanbide libre eta independente gisa, zientzia eta teknika juridikoen aplikazioan oinarrituta eta aholku eta kontseilu emateko jardueraren bitartez, abokatuen defentsa eta laguntzarako oinarrizko eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzeko eta pertsonen eskubide eta askatasunen, gogaidetasunaren eta justiziaren berme izateko.

b) Abokatutzaren lanbidearen ordezkari-tza instituzional eskusiboa.

c) Justizia Administrazioaren funtzionamenduan, sustapenean eta hobekuntzan laguntzea.

d) Defentsarako eta justizia eskuratzeko konstituzio-eskubidea bermatzen laguntzea, ofiziozko defentsa eta doako laguntza juridikoa antolatzearen eta ematearen bidez.

e) Elkargoa osatzen duten pertsonen interes profesionalak defendatzea, gizartearen interes eta behar orokorrekin bat.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak eta abokatutzako profesionalen zerbitzuetako bezeroen interesak babestea.

g) Gizartearen eta abokatutzako profesionalen bermerako kontrol deontologikoa eta diziiplina ahalmena egikaritzea.

h) Bere kideen hasierako eta etengabeko lanbide-heziketa espezializatua.

i) Abokatutzaren lanbiderako sarbide-prozesuan esku hartzea, legetan ezarritakoari jarraikiz.

j) Konstituzioan aldarrikatutako zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa defendatzea eta giza eskubideak sustatu eta defendatzea.

k) Eta Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta aplikatzekoa den estatuko araudiak eta, hala badagokio, autonomia-erkidegokoak aintzat hartzen dituzten gainerakoak.”

12. funtzioa gehitu beharko luke:

“l) Ofiziozko Txanda zerbitzu publiko bat dela aitorturik, Txanda horretan aritzen diren eta aritu izan diren Abokatuei izaera horri dagozkion eskubide guztiak (sozial, laboral, ekonomiko, kotizazioari buruzkoak eta prestazionalak) aitortzea”.

- Justifikazioa:

Epaitegi edo Auzitegi batek esango duenaren zain egon gabe, proposamen honen bitartez planteatzen da Elkargoak berak aitortzea, lehenik, Ofiziozkoa Txanda zerbitzu publiko bat dela, eta, horren ondorioz, zeregin horretan aritzen diren, eta aritu izan diren Abokatu guztien eskubideak (sozial, laboral eta ekonomikoak aitortzea).

----- o -----

2. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Emendatu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 3.a
- Orrialdea. 7 eta 8
- Paragrafoa: m)

- Paragrafo honek adierazten du Elkargoaren funtsezko xedeak, bertan aipatzen diren 11 funtzio direla:

"a) Abokatutzaren lanbidearen jarduna antolatzea, lanbide libre eta independente gisa, zientzia eta teknika juridikoen aplikazioan oinarrituta eta aholku eta kontseilu emateko jardueraren bitartez, abokatuen defentsa eta laguntzarako oinarrizko eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzeko eta pertsonen eskubide eta askatasunen, gogaidetasunaren eta justiziaren berme izateko.

b) Abokatutzaren lanbidearen ordezkari-tza instituzional eskusiboa.

c) Justizia Administrazioaren funtzionamenduan, sustapenean eta hobekuntzan laguntzea.

d) Defentsarako eta justizia eskuratzeko konstituzio-eskubidea bermatzen laguntzea, ofiziozko defentsa eta doako laguntza juridikoa antolatzearen eta ematearen bidez.

e) Elkargoa osatzen duten pertsonen interes profesionalak defendatzea, gizartearen interes eta behar orokorrekin bat.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak eta abokatutzako profesionalen zerbitzuetako bezeroen interesak babestea.

g) Gizartearen eta abokatutzako profesionalen bermerako kontrol deontologikoa eta diziplina ahalmena egikaritzea.

h) Bere kideen hasierako eta etengabeko lanbide-heziketa espezializatua.

i) Abokatutzaren lanbiderako sarbide-prozesuan esku hartzea, legeetan ezarritakoari jarraikiz.

j) Konstituzioan aldarrikatutako zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa defendatzea eta giza eskubideak sustatu eta defendatzea.

k) Eta Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta aplikatzekoa den estatuko araudiak eta, hala badagokio, autonomia-erkidegokoak aintzat hartzen dituzten gainerakoak."

13. funtzioa gehitu beharko luke:

“m) Kontuan hartuta pentsio egokiak eta aldian behin eguneratuak izateko eskubidea politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidarietako bat dela, Elkargoak, Botere Publiko eskudunekin eta/edo Aurreikuspen-Erakundeekin lankidetzan edo elkarlanean, bermatuko du dagokion erakundean 15 urte baino gehiagoz kotizatu duten Abokatu guztiek Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren araberako eta 14 ordainsariko pentsioa baino pentsio handiagoak izango dituztela, urtero handituta.

- Justifikazioa:

Elkargoak bere Elkargokideak diren eta izen diren eta egun egoera zaugarria pairatzen ari direnen aurrean ezin du geldik eta isilik geratu, bizi labora guztian zehar Mutualitatearen batean kotizatzen aritu izan diren Abokatu lankideek, jubilatutakoan, 12 ordainsariko 601 €-tako -edo oinarrizko gutxieneko soldatera heltzen ez diren- pentsioak nola kobratzen dituzten ikusiz. Hori ezin da inolaz ere onartu, eta egoera larri horri Elkargoak bilatu behar dio soluziobidea lehenbailehen, horregatik funtzio hau ere ezarri egin behar da Elkargoaren funtzioen artean.

----- O -----

3. ZUZENKETA (kentzekoa).-

Emendatu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 3.-a
- Orrialdea. 8
- Paragrafoa: j)

- Honakoa esaten du:

"Konstituzioan aldarrikatutako zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa defendatzea eta giza eskubideak sustatu eta defendatzea."

Honakoa esan beharko luke:

"Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa defendatzea eta giza eskubideak sustatu eta defendatzea."

- Justifikazioa:

Konstituziotik askoz ere haratako, demokrata gisan proposatzen da Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren goraipamena egitea. Kasu honetan Konstituzioa aipatzeak mugatu, eta hertsia egiten du planteamentua.

----- o -----

4. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 4
- Orrialdea. 9
- Paragrafoa: s)

Paragrafo honek 18 funtzio zerrendatzen ditu:

"a) Abokatutzaren ordezkartza eta defentsa izatea administrazioaren, erakundeen, auzitegien, entitateen eta partikularren aurrean, eskubide eta interes profesionalak eraginpean hartzen dituzten auzi eta kausa guztietan alderdi izateko legitimazioarekin.

b) Bere estatutuak eta barne-araudiak onartzea, bai eta aldaketak ere.

c) Elkargoko kideen jarduera profesionala antolatzea, prestakuntza, deontologia eta duintasun profesionalak eta partikularren eskubideei zor zaien errespetua zainduta, eta arlo profesionalean eta Elkargoari dagokion arloan diziiplina-ahalmena egikaritzea.

d) Doako laguntza juridikoko zerbitzuak eta sor daitezkeen laguntza eta orientazio juridikoko gainerako zerbitzu guztiak antolatzea eta kudeatzea, bereziki gizarte-sektore ahulenen edo babesaren beharra dutenen onerako.

e) Elkargoko kideentzako intereseko jarduera eta zerbitzu erkide profesionalak, prestakuntzakoak, kulturalak, laguntzakoak, aurreikuspenekoak, aseguramendukoak eta antzeko beste batzuk antolatzea eta sustatzea, erantzukizun zibila nahitaez aseguratzeko barne, legez ezartzen denean.

f) Elkargoko kideek jardun profesionalean eta harreman korporatiboetan informazio- eta komunikazio-teknologiak egoki erabil ditzaten bultzatzea.

g) Praktika Juridikoko Eskola bat eta beste zenbait baliabide sortzea eta mantentzea, tituludun berriek abokatutzan sartzeko aukera izan dezaten, eta Elkargoko kideen etengabeko prestakuntzarako, hobekuntzarako eta espezializazio profesionalerako ikastaroak antolatzeko.

h) Abokatutzan sartzeko izangaien tutoretza gauzatzeko neurriak ezarri, garatu eta sustatzea, Abokatutzako profesionalentzako prestakuntza-ikastaroetan ezarritako praktikak egingo direla bermatzeko beharrezkoak direnak, eta Abokatutzako profesional tutoreen alde egokituz jotzen diren laguntza-neurri guztiak xedatzea, haien eginkizuna betetzen laguntzeko.

i) Intrusismoa eta lehia desleiala saihestera bideratutako neurriak hartzea, horretarako ordenamendu juridikoak aurreikusitako akzioak egikaritzea.

j) Lanbidearen berezko gaietan parte hartzea administrazioaren organo aholku-emaitan eta lanbide arteko erakunde edo elkarteetan. Orobat, ordezkariak izendatzea gai espezifikoei buruzko ezaupideak eskatzen dituen edozein auzitegitan, baldin eta horretarako errekerimendua egiten badiote.

k) Abokatutzaren ordezkariak ziurtatzea gizarte-kontseiluetan eta unibertsitateko patronatuetan, haiek erregulatzen dituzten arauetan ezarritako terminoetan.

l) Botere judizialarekin eta gainerako botere publikoekin lankidetzan jardutea haien arau erregulatuak jarraituz dagozkien organoetako partaidetzaren bitartez. Orobat, azterketak egitea, txostenak jaulkitzea,

estatistikak prestatzea eta bere xedeekin erlazionatutako beste zenbait jarduera egitea, eskatzen dizkiotenean edo beren ekimenez erabakitzen dutenean.

m) Ordainsarien irizpide orientagarriak ezartzea, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorio eskusiboetarako. Irizpide horiek baliozkoak izango dira, era berean, doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak kalkulatzeko. Horrez gain, ordainsari profesionalei buruzko txostenak eta irizpenak ematea, are peritutzostenak jaulkitzea ere, ordainsari profesionalei buruzko gaiak eztabaidatzen diren prozesu judizialean.

n) Interesdunek eskatu ondoren, adiskidetzeko, bitartekotzako edo arbitrajeko bideetan esku hartzea, arrazoi profesionalen ondorioz elkargokideen artean edo horien eta bezeroen artean sor daitezkeen arazoetan. Bereziki, elkargokideen jarduera profesionalaren eta ordainsariak jasotzearen inguruan sor daitezkeen desadostasunak konpontze aldera, alderdi interesdunek alde aurretik eta berariaz men eginda Elkargoak emango duen laudoaren bidez

o) Arbitraje-funtzioak egikaritzea bere erabakipean jartzen dituzten gaietan, eta arbitraje- edo bitartekotza-erakundeak edo gatazkak ebazteko ordeko beste edozein metodo sustatzea edo horietan parte hartzea.

p) Interes profesionaletarako onuragarriak diren eta Elkargoaren helburuak betetzera bideratzen diren gainerako funtzio guztiak.

q) Elkargokideei eta horiei ezarritako zehapen irmoei buruzko informazio-eskaerei erantzutea, bai eta Europar Batasuneko estatu kide bateko edozein agintaritza eskudunek egindako ikuskapen- edo ikerketa-eskaerei ere, Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta horien jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean aurreikusitako baldintzetan, bereziki, informazio-eskaerak eta kontrolak, ikuskapenak eta ikerketak egiteko eskaerak behar bezala arazoituta egoteari dagokionez, eta lortutako informazioa eskatutako helbururako soilik erabiltzeari dagokionez

r) Bere kideen zerbitzuen erabiltzaileen eta kontsumitzaileen interesen babesaren onerako diren funtzio guztiak eta estatutu hauetan ezarritako beste edozein edo indarrean dagoen legeriak xedatzen duen beste edozein.”

Paragrafo honek 19. funtzioa gehitu beharko luke:

a) Abokatutzaren ordezkariak eta defentsa izatea administrazioaren, erakundearen, auzitegien, entitateen eta partikularren aurrean, eskubide eta interes profesionalak eraginpean hartzen dituzten auzi eta kausa guztietan alderdi izateko legitimazioarekin.

b) Bere estatutuak eta barne-araudiak onartzea, bai eta aldaketak ere.

c) Elkargoko kideen jardura profesionala antolatzea, prestakuntza, deontologia eta duintasun profesionalak eta partikularren eskubideei zor zaien errespetua zainduta, eta arlo profesionalean eta Elkargoari dagokion arloan diziiplina-ahalmena egikaritzea.

d) Doako laguntza juridikoko zerbitzuak eta sor daitezkeen laguntza eta orientazio juridikoko gainerako zerbitzu guztiak antolatzea eta kudeatzea, bereziki gizarte-sektore ahulenen edo babesaren beharra dutenen onerako.

e) Elkargoko kideentzako intereseko jardura eta zerbitzu erkide profesionalak, prestakuntzakoak, kulturalak, laguntzakoak, aurreikuspenekoak, aseguratukoak eta antzeko beste batzuk antolatzea eta sustatzea, erantzukizun zibila nahitaez aseguratzea barne, legez ezartzen denean.

f) Elkargoko kideek jardun profesionalean eta harreman korporatiboetan informazio- eta komunikazio-teknologiak egoki erabil ditzaten bultzatzea.

g) Praktika Juridikoko Eskola bat eta beste zenbait baliabide sortzea eta mantentzea, tituludun berriek abokatutzan sartzeko aukera izan dezaten, eta Elkargoko kideen etengabeko prestakuntzarako, hobekuntzarako eta espezializazio profesionalerako ikastaroak antolatzeko.

h) Abokatutzan sartzeko izangaien tutoretza gauzatzeko neurriak ezarri, garatu eta sustatzea, Abokatutzako profesionalentzako prestakuntza-ikastaroetan ezarritako praktikak egingo direla bermatzeko beharrezkoak direnak, eta Abokatutzako profesional tutoreen alde egokitzen jotzen diren laguntza-neurri guztiak xedatzea, haien eginkizuna betetzen laguntzeko.

i) Intrusismoa eta lehia desleiala saihestera bideratutako neurriak hartzea, horretarako ordenamendu juridikoak aurreikusitako akzioak egikaritzea.

j) Lanbidearen berezko gaietan parte hartzea administrazioaren organo aholku-emaileetan eta lanbide arteko erakunde edo elkarteetan. Orobat, ordezkariak izendatzea gai espezifikoetarako buruzko ezaupideak eskatzen dituen edozein auzitegitan, baldin eta horretarako errekerimendua egiten badiote.

k) *Abokatutzaren ordezkariak ziurtatzea gizarte-kontseiluetan eta unibertsitateko patronatuetan, haien erregulatzen dituzten arauetan ezarritako terminoetan.*

l) *Botere judizialarekin eta gainerako botere publikoekin lankidetzan jardutea haien arau erregulatuak jarraikiz dagozkien organoetako partaidetzaren bitartez. Orobat, azterketak egitea, txostenak jaulkitzea, estatistikak prestatzea eta bere xedeekin erlazionatutako beste zenbait jardura egitea, eskatzen dizkionten edo beren ekimenez erabakitzen dutenean.*

m) *Ordainsarien irizpide orientagarriak ezartzea, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorio eskusiboetarako. Irizpide horiek baliozkoak izango dira, era berean, doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak kalkulatzeko. Horrez gain, ordainsari profesionalak buruzko txostenak eta irizpenak ematea, are peritutzostenak jaulkitzea ere, ordainsari profesionalak buruzko gaiak eztabaidatzen diren prozesu judizialetan.*

n) *Interesdunek eskatu ondoren, adiskidetzeko, bitartekotzako edo arbitrajeko bideetan esku hartzea, arazoak profesionalen ondorioz elkargokideen artean edo horien eta bezeroen artean sor daitezkeen arazoetan. Bereziki, elkargokideen jardura profesionalaren eta ordainsariak jasotzearen inguruan sor daitezkeen desadostasunak konpontze aldera, alderdi interesdunek alde aurretik eta berriaz men eginda Elkargoak emango duen laudoaren bidez*

o) *Arbitraje-funtzioak egikaritzea bere erabakipean jartzen dituzten gaietan, eta arbitraje- edo bitartekotza-erakundeak edo gatazka ebazteko ordezkariak beste edozein metodo sustatzea edo horietan parte hartzea.*

p) *Interes profesionalentzako onuragarriak diren eta Elkargoaren helburuak betetzera bideratzen diren gainerako funtzio guztiak.*

q) *Elkargokideei eta horiei ezarritako zehapen irmoak buruzko informazio-eskaerei erantzutea, bai eta Europar Batasuneko estatu kide bateko edozein agintaritzea eskudunek egindako ikuskeren- edo ikerketa-eskaerei ere, Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta horien jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean aurreikusitako baldintzetan, bereziki, informazio-eskaerak eta kontrolak, ikuskerak eta ikerketak egiteko eskaerak behar bezala arazoituta egoteari dagokionez, eta lortutako informazioa eskatutako helbururako soilik erabiltzeari dagokionez*

r) Bere kideen zerbitzuen erabiltzaileen eta kontsumitzaileen interesen babesaren onerako diren funtzio guztiak eta estatutu hauetan ezarritako beste edozein edo indarrean dagoen legeriak xedatzen duen beste edozein.”

s) Elkargoan beren beregi, eta Zuzenbidearen alorreko gainontzeko esparru guztietan, Euskararen Normalizazioaren alde egitea.”

- Justifikazioa:

Bizkaiko Abokatuen Elkargoa aitzindaria izan da gure hizkuntzaren alorrean normalizazioaren alde gauzatu diren hainbat ekimenekin, horregatik, egiteaz gain, bidezkoa da adieraztea hizkuntza-normalizazioaren alde egitea, bere funtzio bat dela.

----- O -----

5. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 11.-a
- Orrialdea. 13
- Paragrafoa: 4.a

- Honakoa esaten du:

4. Gobernu Batzarra da, hala badagokio estatutu hauetan araututako Ofiziozko Txandaren Atalak proposatuta eta indarrean dagoen legeriaren arabera, funtzionamendua, espezialitateak, banaketa-arauak eta abokatuak dagozkien zerbitzu eta txandetan sartzeko betekizunak erregulatuko dituzten arauak onartzeaz arduratzen den organoa. Bera arduratuko da, halaber, berekin dakartzan betebeharrak betetzen ez direnerako zehapen-erregimen espezifikoa, diziiplina erregimen orokorraren osagarria, ezartzeaz.

- Honakoa gehitu beharko litzaioke:

4. Gobernu Batzarra da, hala badagokio estatutu hauetan araututako Ofiziozko Txandaren Atalak proposatuta eta indarrean dagoen legeriaren arabera, funtzionamendua, espezialitateak, banaketa-arauak eta abokatuak dagozkien zerbitzu eta txandetan sartzeko betekizunak erregulatuko dituzten arauak onartzeaz arduratzen den organoa. Bera arduratuko da, halaber, berekin dakartzan betebeharrak betetzen ez direnerako zehapen-erregimen espezifikoa, diziplina erregimen orokorraren osagarria, ezartzeaz.

Guardiak amaituta eta hurrengo 12 orduetan, kasu guztietan, Gobernu Batzarrak bermatu behar du Abokatuei dagokien atsedenerako eskubidea gauzatzea, horretarako dagozkion baliabideak erabiliz.

Ordainsariei dagokiela, Gobernu Batzarrak bermatu behar du Ofiziozko Txandako prozedura guztiak merkatuko ordainsarien arabera ordainduko direla, eta inoiz ez direla txikiagoak izango Elkargoak edo Legelarien Euskal Kontseiluak finkatu izan dituen, edo finkatuko dituen irizpideak, edo Kostuen Tasazioen Atalak erabiltzen dituenak baino.

- Justifikazioa:

Langileen atsedenerako eskubidea XXI. mendean langilegoaren hitzarmen guztietan jasota dago, hortaz, bidezkoa da geure Estatutuetan ere jasotzea, izan ere, onartezina lanean igarotako 24 ordutako gardien osteko hurrengo orduetan lanean segitu behar izatea.

Ofiziozko Txanda zerbitzu publiko bat da, horren ondorioz ordainsari duinak dagozkio, Abokatuoi, langileak garen heinean, dagozkigun eskubideez gain (kotizazioa, atsedenerako eskubidea, duintasunerako eskubidea).

----- o -----

6. ZUZENKETA (aldatzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 14.a
- Orrialdea. 14
- Paragrafoa: 2.

- Honakoa esaten du:

2. Gobernu Batzarrari dagokio azterlan-taldean eta batzordeen eraketa onartzea, bere ekimenez edo gutxienez Elkargoko hamar kidek eskatuta. Berari dagokio, halaber, estatutuak eta horien aldaketak eta, hala badagokio, etendura eta desegitea onartzea.

- Honakoa esan beharko luke:

2. Gobernu Batzarrak onartuko du azterlan-taldean eta batzordeen eraketa, bere ekimenez edo gutxienez Elkargoko hamar kidek eskatuta. Berari dagokio, halaber, estatutuak eta horien aldaketak eta, hala badagokio, etendura eta desegitea onartzea.

- Justifikazioa:

Batzordeen kasua desberdina izan badaiteke ere, proposatzen den aldaketan honen arabera Azterlan talde berriak osatzea ez da Gobernu Batzarraren erabaki diskrezional bat izan behar, horrek arbitrartatea sortaraz dezakeelako. Zuzenketa honetan proposatzen da Azterlan talde berriak sortzeko irizpide objektibo bat finkatzea, eskabidea Elkargokide kopuru jakin batek sinatzea esaterako (proposamenean 10 finkatu da) kopuru hori batzeak erakutsiko bailuke horretarako interes bat dagoela, nahikoa, beraz, Azterlan bat lanean hasteko.

----- O -----

7. ZUZENKETA (kentzekoa).-

Aldatu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 21.-a
- Orrialdea. 20
- Paragrafoa: 1.

- Honakoa esaten du:

1. Lanbidean aritzen hasi aurretik, abokatutzaren lanbidean sartu nahi duten pertsonak zin egin edo hitzeman beharko dute Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari men egingo diotela eta lanbidearen arau deontologikoak beteko dituztela, askatasunez eta independentziaz, fede onez, bezeroarekiko leialtasunez, kontrako alderdia errespetatuta eta sekretu profesionala gordeta.

- Honakoa esan beharko luke:

1. Lanbidean aritzen hasi aurretik, abokatutzaren lanbidean sartu nahi duten pertsonak zin egin edo hitzeman beharko dute indarreko ordenamendu juridikoari men egingo diotela eta lanbidearen arau deontologikoak beteko dituztela, askatasunez eta independentziaz, fede onez, bezeroarekiko leialtasunez, kontrako alderdia errespetatuta eta sekretu profesionala gordeta.

- Justifikazioa:

Emendakin honen bitartez, "Konstituzioari eta gainerako" kendu, eta "indarreko" sartzea proposatzen da.

Proposatzen den aldaketa honek beharrezkoa ez den errepikapen bat saihesten du.

Estilo kontua da.

Gure Estatutuetan agertu ala ez, ez dago inolako zalantzarik estatuko Konstituzioa ere -momentuz- gure indarreko ordenamendu juridikoaren parte dela, hortaz, arau hori birritan agertzea idazkera argiari zor, eragotzi behar den pleonasmotik dela, ordenamendu juridikoari men eginda, isilbidez, Konstituzioari ere men egiten diogu eta.

Esan beharrik ez dago, horrek ez duela eragotzen, Konstituzioari ere men egin nahi dionak, Elkargokidetze ekitaldian hori egin ahal izatea.

Planteatzen den modu honetan jarrita, hau da, soilik "ordenamendu juridikoari" men eginda ("inposatu ez, eragotzi ere ez" aukera baliatuta) erosoagoa izango da Elkargokide berria izan nahi duen ororentzat.

Bestalde, "indarreko" sartzea egokia da, horrek estatutuen etengabeko gaurkotasuna bermatzen duelako.

----- o -----

8. ZUZENKETA (aldatzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 32.a
- Orrialdea. 27
- Paragrafoa: 9.a

- Honakoa esaten du:

9. Elkargoak ez du izango atal honetan eta hurrengoan berariaz aurreikusitakoaz bestelako esku-hartzerik bezeroak abokatuari zor dizkion ordainsariak zehazteko. Elkargoak ezin izango du ezarri ordainsari profesionalari buruzko baremorik, tarifarik edo beste orientaziorik, gomendiorik, gidalerrorik, arau edo erregelarik. Elkargoak ez du kontsultarik onartuko, ez enkargu profesionalaren aurrekorik ez ondorengorik, ordainsari profesionalak zehazteko edo ordainsari jakin batzuk gehiegizkoak edo egokiak iruditzen zaizkion adierazteko. Ordainsari profesionalen arloko ezadostasunak judizioz kanpo ebatzearren, Elkargoak bitartekotza- edo arbitraje-prozeduren bitartez besterik ezin izango du esku hartu.

Prozedura horiek alderdiek ituntzen dituzten terminoetan lotuko dituzte alderdiak.

- Honakoa esan beharko luke:

9. Elkargokide batek eskatuta, Elkargoak laguntza eman dezake bezeroak abokatuari zor dizkion ordainsariak zehazteko. Elkargoak ordainsari profesionalei buruzko baremo, tarifa edo beste orientazio, gomendio, gidalerro, arau edo erregelak ezarri ahalko ditu, Elkargokideen zeregin horretan lagundu ahal izateko. Elkargoak kontsultak onartuko ditu, enkargu profesionalaren aurreko edo ondorengo ordainsari profesionalak zehazteko edo ordainsari jakin batzuk gehiegizkoak edo egokiak iruditzen zaizkion adierazteko. Ordainsari profesionalen arloko ezadostasunak judizioz kanpo ebaztearren, Elkargoak bitartekotza- edo arbitraje-prozeduren bitartez esku hartu ahalko du. Prozedura horiek alderdiek ituntzen dituzten terminoetan lotuko dituzte alderdiak.

- Justifikazioa:

Zeregin juridikoetan aritzen garen Abokatu profesionalontzako ordainsariak zehaztea, eta sarritan finkatu eta ostean kobratzea, ez da lan erraz eta xamurra izaten, hortaz, bidezkoa da zeregin horietan Elkargoak Elkargokideei laguntza ematea.

Zeregin horri begira baliatu beharra dago 5/2024 Lege Organikoa, azaroaren 11koa, Defentsa Eskubideari buruzkoaren 6, 2, e) artikuluan azaldutakoa.

----- o -----

9. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 41.-a
- Orrialdea. 32
- Paragrafoa: k)

- Honakoa esaten du:

Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta indarrean dagoen legeriak ezar ditzaketenez gain, Gobernu Batzarrak eskudantzia hauek ditu:

k) Doako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzuak emateko funtzionamendua eta izendapenak arautzea, legez ezarritako baldintzetan.

- Honakoa gehitu beharko litzaioke:

Abokatutzaren Estatutu Orokorrak eta indarrean dagoen legeriak ezar ditzaketenez gain, Gobernu Batzarrak eskudantzia hauek ditu:

k) Doako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzuak emateko funtzionamendua eta izendapenak arautzea, legez ezarritako baldintzetan.

Guardiak amaituta eta hurrengo 12 orduetan, kasu guztietan, Abokatuei bermatzea dagokien atsedenerako eskubidea gauzatzea, horretarako dagozkion baliabideak erabiliz.

Ordainsariei dagokiela, Ofiziozko Txandako prozedura guztiak merkatuko ordainsarien arabera ordainduko direla bermatzea, eta inoiz ez direla txikiagoak izango Elkargoak edo Legelarien Euskal Kontseiluak finkatu izan dituen, edo finkatuko dituen irizpideak, edo Kostuen Tasazioen Atalak erabiltzen dituenak baino.

- Justifikazioa:

Aldaketa honek ez du aparteko justifikaziorik behar, izan ere, Gobernu Batzarrari baitagokio Abokatuoi dagozkigun gutxieneko eskubideak gauzatuko direla bermatzea.

10. ZUZENKETA (kentzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 59.a
- Orrialdea. 45
- Paragrafoa: 1.

- Honakoa esaten du:

59. artikulua. Karguaz jabetzea. 1. Hautetsiak beren karguez jabetuko dira, kargua leialtasunez betetzeko, Konstituzioa, lanbidearen arau deontologikoak eta gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuta, eta Gobernu Batzarreko eztabaiden sekretua gordetzeko zin egin edo hitzeman ondoren, horretarako deitzen den lehen Gobernu Batzarrean. Eraitza aldarrikatzen den egunetik hasi eta, gehienez ere, hamar eguneko epean egin beharko da.

- Honakoa esan beharko luke:

59. artikulua. Karguaz jabetzea. 1. Hautetsiak beren karguez jabetuko dira, kargua leialtasunez betetzeko, lanbidearen arau deontologikoak eta indarreko gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuta, eta Gobernu Batzarreko eztabaiden sekretua gordetzeko zin egin edo hitzeman ondoren, horretarako deitzen den lehen Gobernu Batzarrean. Eraitza aldarrikatzen den egunetik hasi eta, gehienez ere, hamar eguneko epean egin beharko da.

- Justifikazioa:

Emendakin honen bitartez, "Konstituzioari eta gainerako" kentzea eta "indarreko" jartzea proposatzen da.

59. artikulua honetan proposatutako idazkera, 21.aren oso antzekoa da, baina badu desberdintasun bat, egokia dena.

Artikuluak honela dio: "Konstituzioa, lanbidearen arau deontologikoak eta gainerako ordenamendu juridikoa errespetatuta". Esaldia modu honetan egituratuta, proposatutako artikulua, arau deontologikoak ordenamendu

juridikoan sartzen ditu, esan bezala era egokian, Elkargokideok, jardunaren poderioz ikusten dugun eran, arau deontologikoen indar handia dute eta.

Bestalde, "Konstituzioa" kentzeari buruz, aurreko zuzenketa egin den justifikazio bera erabiltzen da:

Proposatzen den aldaketa honek beharrezkoa ez den errepikapen bat saihesten du.

Estilo kontua da.

Gure Estatutuaren agertu ala ez, ez dago inolako zalantzarik estatuko Konstituzioa ere -momentuz- gure indarreko ordenamendu juridikoaren parte dela, hortaz, arau hori birritan agertzea idazkera argiari zor, eragotzi behar den pleonazio bat dela, ordenamendu juridikoari men eginda, isilbidez, Konstituzioari ere men egiten diogu eta.

Esan beharrik ez dago, horrek ez duela eragozten, Konstituzioari ere men egin nahi dionak, Batzarkidetze ekitaldian hori egin ahal izatea, "inposatu ez, eragotzi ere ez" aukera baliatuta.

Planteatzen den modu honetan jarrita, hau da, soilik "ordenamendu juridikoari" men eginda ("inposatu ez, eragotzi ere ez" aukera baliatuta) erosoagoa izango da Batzarkide hautatua izan eta zin egin behar duen edozein Elkargokiderentzako.

Bestalde, "indarreko" sartzea egokia da, horrek estatutuen etengabeko gaurkotasuna bermatzen duelako.

----- o -----

11. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 60.a
- Orrialdea. 45
- Paragrafoa: k)

- Honakoa esaten du:

60,2 artikuluan 10 Atal zerrendatzen ditu, berriak sortzeko aukera zabalik uzten badu ere.

Honakoak dira:

2. Elkargoaren atalak hauek izango dira, Gobernu Batzarrak era ditzakeen beste batzuk ezertan galarazi gabe:

a) Ofiziozko Txandaren Atala.

b) Deontologia Atala.

c) Kostuen Tasazioen Atala.

d) Erantzukizun Zibilaren Atala.

e) Justizia Administrazioarekiko eta Administrazio Publikoarekiko Harremanen Atala.

f) Praktika Juridikoko Eskolaren eta Prestakuntzaren Atala.

g) Komunikazio Publikoaren Atala.

h) Administrazioarekiko Auzien Atala.

i) Barruti Judizialeko Ordezkaritzen Atala.

j) Espetxeratuen Laguntzaren Atala.

- Honakoa esan beharko luke:

Aurrekoei, *k) Atala* gehitzea proposatzen da; *"Hizkuntza normalizazioa"*.

- Justifikazioa:

Euskararen ofizialtasunari dagokiola, indarreko araudiaz gain, eta beren beregi Elkargorako, Estatutuen proposameneko 15. artikulua, Elkargorako euskara eta gaztelania aitortzen ditu hizkuntza ofizial gisan, eta kide guztiei, eta herritarrei eskubidea aitortzen die Elkargoarekin harremanak gazteleraz zein euskaraz izateko.

Esan beharrik ez dago, euskara badela geure Herrian dugun ondare inmaterial garrantzitsuenetakoa, Instituzio, Eragile zein norbanako guztiok zaindu eta babestu beharrekoa. Zentzu horretan, harrotasunez esan dezakegu geure Elkargoa aitzindaria dela zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen, baina, bistan da eskubide hori bermatzeaz gain, Elkargo barruan, zein Elkargotik kanpo ere (Epaitegi eta Auzitegiak, Erregistroak, Notaritzak, etab.) egoera normalizatu batera heltzeko oraindik ere asko falta zaigula, eta zeregin horretan Atal berezitu bat izatea lagungarria litzateke oso.

----- o -----

12. ZUZENKETA (gehitzekoa).-

Zuzendu nahi den testuaren kokapena:

- Artikulua. 60.a
- Orrialdea. 45
- Paragrafoa: l)

- Honakoa esaten du:

60,2 artikuluan 10 Atal zerrendatzen ditu, berriak sortzeko aukera zabalik uzten badu ere.

Honakoak dira:

2. Elkargoaren atalak hauek izango dira, Gobernu Batzarrak era ditzakeen beste batzuk ezertan galarazi gabe:

a) Ofiziozko Txandaren Atala.

b) Deontologia Atala.

- c) *Kostuen Tasazioen Atala.*
- d) *Erantzukizun Zibilaren Atala.*
- e) *Justizia Administrazioarekiko eta Administrazio Publikoarekiko Harremanen Atala.*
- f) *Praktika Juridikoko Eskolaren eta Prestakuntzaren Atala.*
- g) *Komunikazio Publikoaren Atala.*
- h) *Administrazioarekiko Auzien Atala.*
- i) *Barruti Judizialeko Ordezkaritzen Atala.*
- j) *Espetxeratuen Laguntzaren Atala.*

- Honakoa gehitu beharko luke:

Aurrekoei, **I) Kultura Atala** gehitzea proposatzen da.

- Justifikazioa:

Proposamen honen bitartez Kultura Atala mantendu nahi da.

Emendakinaren justifikaziorako tarte honetan ez dago espazio nahikorik Kultura Atalak urte luzeetan burutu dituen lan eta zereginak zerrendatzeko.

Kulturak ere elkartu egiten gaitu, eta, era horretan Kultura Atalak Elkargoko loturak indartu eta zabaldu egiten ditu, Elkargokide, Elkargo eta gure gizartearen mesedetarako.

Ez da adierazi zergatik desagertu behar den Atal hori, eta emendakin honen bitartez, Kultura Atala mantentzea proposatzen da.

----- o -----

Esandakoa dela bide, eskatzen du, garaiz eta behar den moduan agertuta, eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Estatutu berrien proiektuan —Gobernu Batzordeak 2024ko irailaren 18an onartutakoak— dagokion prozedura gauzatu ondoren, dagokion organoak azaldutako zuzenketa hauek onartzea, baina, horren aurretik, proposatutako Zuzenketetan akatsen bat sumatuko balitz, zuzentzeko epea ematea.

Bilbon, 2024ko abenduaren 20an

A handwritten signature in blue ink, appearing to be 'Iñigo Santxo Uriarte', written in a cursive style.

Izp. Iñigo SANTXO URIARTE
3874 zki.-dun Elkargokidea